

EUSKARAZKO IKT-EN INBENTARIOA



ERABILTZAILEAREN ESKULIBURUA

3.0 bertsioa

Gasteiz, 2007ko ekaina

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. NOLA SARTU SISTEMARA HERRITAR ARRUNT GISARA	3
2.1. PROIEKTUEN KONTSULTA ETA AURREBISTA	5
2.1.1. <i>Kontsulta lan-arloka</i>	5
2.1.2. <i>Kontsulta aurreratua</i>	5
2.1.3. <i>Kontsulta-emaizten aurrebista</i>	6
2.2. PROIEKTUEN INFORMAZIOA NOLA BISTARATU	7
2.3. AGENTE TEKNOLOGIKOEN KONTSULTA ETA AURREBISTA	10
2.3.1. <i>Kontsulta lan-arloka</i>	10
2.3.2. <i>Kontsulta aurreratua</i>	10
2.3.3. <i>Kontsulta-emaizten aurrebista</i>	11
2.4. AGENTE TEKNOLOGIKOEN INFORMAZIOA NOLA BISTARATU	11
2.5. INKESTA-ARLOA.....	12
3. NOLA SARTU SISTEMARA AGENTE GISARA	13
3.1. HARPIDETZA/IDENTIFIKAZIOA	13
3.2. PROIEKTUEN KONTSULTA ETA AURREBISTA	15
3.2.1. <i>Nire proiektuak</i>	15
3.2.2. <i>Kontsulta lan-arloka</i>	15
3.2.3. <i>Kontsulta aurreratua</i>	16
3.2.4. <i>Kontsulta-emaizten aurrebista</i>	18
3.3. PROIEKTUEN MANTENTZE-LANAK.....	19
3.4. PROIEKTUARI DAGOKION DOKUMENTAZIOAREN MANTENTZE-LANAK	24
3.5. PROIEKTUEN INFORMAZIOA NOLA BISTARATU	25
3.6. AGENTE TEKNOLOGIKOEN KONTSULTA ETA AURREBISTA	29
3.6.1. <i>Enpresaren datuak</i>	29
3.6.2. <i>Kontsulta lan-arloka</i>	15
3.6.3. <i>Kontsulta aurreratua</i>	30
3.6.4. <i>Kontsultaren emaizten aurrebista</i>	31
3.7. AGENTE TEKNOLOGIKOEN MANTENTZE-LANAK.....	32
3.8. AGENTE TEKNOLOGIKOEN INFORMAZIOA NOLA BISTARATU	33
3.9. INKESTA-ARLOA.....	35

1. SARRERA

Euskarazko IKTen inbentarioa Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara atarian dago, Euskadi.net atariaren barnean. Euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiekin lotutako **proiektuei, baliabideei eta erakundeei** buruzko informazio zabala eskaintzen die erabiltzaileei.

Informazioa sailkatzerakoan, bi atal bereiztu dira:

1. **Proiektuak**; euskarazko IKT proiektuei eta baliabideei buruzko informazio guztia: deskribapena, jardueraren eremua, jarduerak/baliabideak eta teknologia, kontrola eta jarraipena, jabetza eta proiektuekin lotutako dokumentazioa.
2. **Agente teknologikoak**; euskararen eta IKTen sektoreko agente (IKTen eta euskararen alorra teknologiaz, baliabideez eta produktuez hornitzen duen erakundea) espezializatuen informazio guztia: enpresaren izena, helbidea, telefonoa, faxa, helbide elektronikoa, web gunearen helbidea, dagozkion lan-arloak eta -azpiarloak eta eskaintzen dituen zerbitzuak.

Informazio horrek bi eratako erabiltzaileak ditu:

- **Herritarrak, oro har**: euskarazko IKTen inbentarioan argitaratutako proiektu eta agente teknologiko guztiak kontsulta ditzakete herritarrek.
- **Agenteak**: dagozkien proiektu eta agente teknologikoen informazioaren mantentze-lanak egin ditzakete agenteek, euskarazko IKTen inbentarioan argitaratutako gainerako proiektu eta agente teknologikoak kontsultatzeaz gain.

2. NOLA SARTU SISTEMARA HERRITAR ARRUNT GISARA

Euskarazko IKTen inbentariora sartzeko aukera izango duzu, Euskara atariko pantaila nagusian dagoen estekaren bidez.

Herritar gisa sartzean, orrialde nagusi hau bistaratuko duzu:

The screenshot shows the website interface for the Euskara IKT inbentarioa. The top navigation bar includes 'Hasiara', 'Kontaktua', 'Bilatu', 'Laguntza', 'Mapa', 'Erabilerraztasuna', and 'Identifikatu'. The main content area is titled 'Hemen zaude: Euskarazko IKTen inbentarioa' and features several sections: 'IKT/TIC INBENTARIOA' with a search bar and links for 'Zer da inbentarioa?', 'Lan-arloak', and 'Ohiko galderak'; 'Inbentarioa' with links for 'Proiektuak (lan-arloak)', 'Proiektuak (kontsulta aurreratua)', 'Agente teknologikoak (lan-arloak)', and 'Agente teknologikoak (kontsulta aurreratua)'; 'Proiektuak' with a search bar and a link to 'Euskarazko IKT proiektuei buruzko informazio guztia (293)'; 'Agente teknologikoak' with a search bar and a link to 'Sektoreko agentei buruzko informazioa atzitu (0)'; and 'Inkestun arloa' with a link to 'Zure ekarpenak hobetzen laguntzen digu. Atal honi erantsitako galdeketa bete dezakezu. Erantzun ezazu gure inkestak!'. There are also sidebars for 'Gehien kontsultatutako proiektuak' and 'Eguneratutako azken proiektuak'. The footer includes 'Información legal' and '2004. Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco'.

Orrialde nagusian, aukera hauek emango dizkizu euskarazko IKTen inbentarioaren sistemak:

Edukien arloa

- Zer da inbentarioa?: honen bidez, tresnaren aurkezpen laburra eskuratuko duzu.
- Lan-arloak: inbentarioko informazioa katalogatzeko/biltzeko erabiltzen diren lan-arlo eta -azpiarlo guztiak labur deskribatuta ikusiko dituzu.
- Ohiko galderak: tresnari buruz egiten diren ohiko galderak erakusten dituen orria ikusiko duzu.

Inbentarioa kontsultatzeko arloa

- Proiektuak (lan-arloka): lan-arloen arabera proiektuak kontsultatzeko modua izango duzu.
- Proiektuak (kontsulta aurreratua): zenbait irizpideren arabera proiektuak kontsultatzeko modua izango duzu.
- Agente teknologikoak (lan-arloka): lan-arloen arabera agente teknologikoak kontsultatzeko modua izango duzu.
- Agente teknologikoak (kontsulta aurreratua): zenbait irizpideren arabera agente teknologikoak kontsultatzeko modua izango duzu.

Iragarki-banden arloa

- Softwarea: euskarazko softwarea deskargatzeko orri batera sartzeko bidea izango duzu.

- W3C WAI-A: tresnaren erabilerraztasun-mailaren berri izango duzu hemen.

Aplikazio-arloa

- Menuaren arloa:
 - Agenteentzako sarbidea: agenteentzako sistemako identifikazio/harpidetza-orrira sartzeko bidea izango duzu.
 - Eskuliburua: tresnari buruzko laguntza-orrira sartzeko bidea izango duzu.
- Proiektuak: proiektu-arloen arabera kontsultatzeko modua izango duzu.
- Agente teknologikoak: agente teknologikoen arloen arabera kontsultatzeko modua izango duzu.
- Gehien kontsultatutako proiektuak: gehien kontsultatzen diren proiektuen fitxetarako zuzeneko sarbideak eskuratzeko modua izango duzu.
- Eguneratutako azken proiektuak: eguneratu diren azken proiektuen fitxetarako zuzeneko sarbideak eskuratzeko modua izango duzu.
- Inkesta-arloa: inkestaren inprimakia eskuratu, bete eta inbentarioaren arduradunari bidaltzeko modua izango duzu, azter dezan.

2.1. Proiektuen kontsulta eta aurrebista

Bide hauetakoren bat erabilia kontsultatu ahal izango dituzu euskarazko IKTen inbentarioan argitaratutako proiektu guztiak:

- kontsulta lan-arloka
- kontsulta aurreratua

2.1.1. Kontsulta lan-arloka

Lan-arlokako kontsultaren bidez, proiektuak lan-arloen arabera kontsultatu ahal izango dituzu. Euskarazko IKTen inbentarioan lan-arlo bakoitzean argitaratu diren proiektuen kopurua izango duzu.

Lan-arloaren izena sakatzean, lan-arlo horretako proiektuen aurrebista azalduko zaizu.

PROIEKTUAK » Lan-arlokako kontsulta	
HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA - TRESNAK (67) Ahots-baliabideak, lexikoak, hiztegiak, zuzentzaileak, lematizatzaileak, dok. eleanitzen edizioa, oc...	PRESTAKUNTZA/E-LEARNING (5)
SISTEMA INTERAKTIBO AURRERATUAK (18) Ahots-egagutza automatikoa, ahotsaren sintesia, ahotsaren bidezko identifikazio biometrikoa, galdera...	ITZULPENGINTZARI LAGUNTZEKO TRESNAK (15) Itzulpen-memoriak, bestelakoak, itzulpen automatikorako produktuak
EUSKARAZKO SOFTWAREA (190) Bulegotika, enpresa-kudeaketa, erabilera orokorreko tresnak /lanabesak, irakaskuntza, bestelakoak, a...	INFORMAZIOAREN ETA JAKINTZAREN KUDEAKETA (21) Dokumentuen berreskurapena, informazio-erazketa, laburpen automatikoa, dokumentu sailkatzaileak, be...
BESTERIK (4)	E-INKLUSIOA (5)
	EDUKIEN INDUSTRIA (EUSKARAZKO EDUKI DIGITALAK SORTZEA) (8)

2.1.2. Kontsulta aurreratua

Kontsulta aurreratuaren bidez, irizpide hauen arabera bilatu ahal izango dituzu proiektuak:

- Izena/Deskribapena: irizpide honetan idatzitako testua izenean edo deskribapenean duten proiektuak bilatuko dituzu.
- Proiektu-mota: proiektu-mota bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- Proiektuarekin lotutako lan-arloak eta -azpiarloak: azpiarlo bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- Egoera: egoera bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- Bilaketa testu-eremuetan; testua eremu hauetan duten proiektu guztiak bilatuko dituzu:
 - izena
 - izen laburra

- o helburuak/ azalpena
- o sustatzaileak
- o proiektuaren arduradunak
- o beste agente kolaboratzaileak
- o jardueraren eremua
- o hartzaileak/erabiltzaileak
- o jarduera nagusiak
- o erabilitako baliabideak
- o teknologiaren deskribapena
- o lortutako aterakinak
- o jarraipena – geroko jarduerak - lortutako proiektuak
- o merkaturatzeko eta banatzeko burututako ekintzak
- o jabetza

Bilatu botoia sakatuta, egindako kontsultaren emaitzen aurrebista azalduko zaizu.

Garbitu botoia sakatuta, proposatutako bilaketa-irizpide guztiak ezabatuko dituzu.

PROIEKTUAK » Kontsulta aurreratua

Bilatu Garbitu

Izena / Deskribapena:

Proiektu-mota:

ARLOAK: lotutako lan-azpiarloak:

Egoera: Amaitua Aurreikusia Egiteko bidean Etengabe eguneratzen

Bilaketa testu-eremuetan:


Bilatu Garbitu

2.1.3. Kontsulta-emaitzen aurrebista

Kontsultaren emaitzak orri-taula batean bistaritzen dira (bost proiektu orri bakoitzeko), eta taula horretan proiektuaren informazioaren laburpena dago, eremu hauetan: izena, proiektu-mota, proiektuarekin lotutako lan-arloak eta -azpiarloak, egoera, jabetza eta proiektuarekin lotutako dokumentazioa (Dok.).

Eremu horien arabera ordena dezakezu taula (gorantz edo beherantz).

Emaitzak bistaratzeko pantailatik, bi eratara ikus dezakezu proiektuaren informazioa:

- Proiektuaren izena sakatuta, proiektuaren fitxako deskribapenaren atalera sartuko zara.
- Dok.  ikonoa sakatuta, proiektuaren fitxaren dokumentazioaren atalera sartuko zara (ikonoa bistaritzen da proiektuarekin lotutako dokumentazioa badago).

Pantaila horren goiburuan, egindako kontsulta-irizpidea azaltzen da.

PROIEKTUAK » Kontsulta aurreratua » Kontsultaren emaitzak					
Kontsultarako irizpideak: Izena / Deskribapena: Xuxen					
Lehena Aurrekoa Orria 1/2 (7 aurkituak) Hurrengoa Azkena					
Izena ▲▼	Mota ▲▼	ARLOAK: lan-azpiarloak ▲▼	Egoera ▲▼	Jabetza ▲▼	Dok.
XUXEN zuzentzaile ortografikoaren I eta II bertsioak (MS Office 97 eta Mac Word 2001, Mac Word 98,	Aplikazioen / Produktuen garapena	HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak	Amaitua	Ixa taldea	
Xuxen Director Xtra	Aplikazioen / Produktuen garapena	HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak	Amaitua	Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, S.L.	
Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 Windows/Linux, MAC Word X)	Aplikazioen / Produktuen garapena	HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak	Amaitua	Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, S.L.	
Xuxen Quark 6.5-erako	Aplikazioen / Produktuen garapena	HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak	Amaitua	Eleka	
XUXENet	Aplikazioen / Produktuen garapena	HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak	Amaitua	Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, S.L.	
Lehena Aurrekoa Orria 1/2 (7 aurkituak) Hurrengoa Azkena					



2.2. Proiektuen informazioa nola bistaratu

Proiektu bakoitzaren informazioa honela bistaritzen da:

- **Fitxa-formatua**
- **Inprimaki-formatua:** fitxa-formatuan, 'Inprimatu' botoia sakatuz gero, proiektuaren informazioa inprimaki-formatuan eskuratuko duzu.


Proiektuari buruzko informazioa atal hauetan banatzen da:

- **Deskribapena**
 - Izena
 - Izen laburra
 - Proiektu-mota
 - ARLOAK: lotutako lan-azpiarloak
 - Helburuak/Azalpena
 - Sustatzaileak
 - Proiektuaren arduradunak
 - Beste agente kolaboratzaileak

PROIEKTUAK » Kontsulta aurreratua » Kontsultaren emaitzak » Fitxa					
					
Proiektuaren izena: Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 Windows/Linux, MAC Word X)					
Deskribapena	Jardueraren eremua	Jardu. / Bal. / Tekn.	Kontr. eta Jar.	Jabetza	Dokumentazioa
Izena: Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 Windows/Linux, MAC Word X)					
Izen laburra: Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 Windows/Linux, MAC Word X)					
Proiektu-mota: Aplikazioen / Produktuen garapena					
ARLOAK: lotutako lan-azpiarloak: HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak					
Helburuak / Azalpena: Euskarazko testuetako errore ortografikoak markatzea eta zuzentzea Testu-editore gehienetan erabili ahal izatea					
Sustatzaileak: Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, S.L. eta HPS					
Proiektuaren arduradunak: Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, S.L.					
Beste agente kolaboratzaileak: IXA Taldea					
					


- **Jardueraren eremua**
 - Jardueraren eremua

- o Hartzaileak/Erabiltzaileak

Deskribapena	Jardueraren eremua	Jardu. / Bal. / Tekn.	Kontr. eta Jar.	Jabetza	Dokumentazioa
Jardueraren eremua: Bulegotika Hartzaileak / Erabiltzaileak: Instituzioak, enpresak eta norbanakoak.					
					


- **Jarduerak/Baliabideak/Teknologia**

- o Jarduera nagusiak
- o Erabilitako baliabideak
- o Teknologiaren deskribapena

Deskribapena	Jardueraren eremua	Jardu. / Bal. / Tekn.	Kontr. eta Jar.	Jabetza	Dokumentazioa
<p>Jarduera nagusiak: Euskararen morfologiaren deskribapen formalak Analizatzaile morfologikoa EDBL garatu, osatu eta mantentzea Proposatzailea APIak Interfazea</p> <p>Erabilitako baliabideak: EDBL (Euskararen Datu-Base Lexikala) Morfeus analizatzaile morfologikoa Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko argitalpenak</p> <p>Teknologiaren deskribapena: Analizatzaile morfologikoa sortu da, bi mailatako morfologia erabiliz. EDBL (Euskararen Datu-Base Lexikala) sortu zen eta elikatu da ordutik.</p> <p>Ikus http://ixa.si.ehu.es/Ixa/Argitalpenak/Artikuluak web orrian: Aduriz I., Alegria I., Artola X., Ezeiza N., Sarasola K. 1997 A spelling corrector for Basque based on morphology Literary & Linguistic Computing, Vol. 12, No. 1. Oxford University Press. Oxford. 1997.</p> <p>Agirre E., Alegria I., Arregi X., Artola X., Díaz de Ilarraza A., Maritxalar M., Sarasola K. Xuxen: A Spelling Checker/Corrector for Basque based in Two-Level Morphology Proceedings of ANLP'92, 119-125. Povo Trento. 1992.</p>					
					


- **Kontrola eta jarraipena**

- o Egoera
- o Lortutako aterakinak
- o Jarraipena – Geroko jarduerak - Lotutako proiektuak
- o Merkaturatzeko eta banatzeko burutako ekintzak

Deskribapena	Jardueraren eremua	Jardu. / Bal. / Tekn.	Kontr. eta Jar.	Jabetza	Dokumentazioa
<p>Egoera: Amaitua</p> <p>Lortutako aterakinak: Sarean deskargatzeko jarrita dago: http://www.euskara.euskadi.net (softwarea deskargatzea)</p> <p>Jarraipena- Geroko jarduerak- Lotutako proiektuak: Estilo-eta gramatika-zuzentzailea</p> <p>Merkaturatzeko eta banatzeko burututako ekintzak: http://www.euskara.euskadi.net web gunean deskargatzeko jartzea 2005ean Gara egunkariarekin batera banatu zen Xuxenweb</p>					
					

- **Jabetza**

- o Jabetza

Deskribapena	Jardueraren eremua	Jardu. / Bal. / Tekn.	Kontr. eta Jar.	Jabetza	Dokumentazioa
Jabetza: Eleka Ingeniaritza Linguistikoa, S.L.					
					

- **Dokumentazioa:** proiektu batekin lotutako dokumentazioari buruzko informazioa taula batean bistaratzen da; deskribapen-eremu hauek aurkituko dituzu bertan:

- o Deskribapena
- o Dokumentua/URL: URL bat bada, hori sakatuz gero, nabigatzailearen

bidez, leiho berri batean bistaratuko da orria. Dokumentu bat bada, berriz, dagokion dokumentuaren izena, fitxategi-mota eta tamaina azalduko dira.

- o Altaren data
- o Ireki/Deskargatu: dokumentu bat bada (.pdf, .mpg, .mp3, .zip), 'Ireki/Deskargatu' ikonoa sakatuta, beste leiho batean irekiko da edo dokumentua deskargatu ahal izango da. URL helbide bat bada (http://...), ez da ezer azalduko eremu horretan.

Eranskinak eremu horien arabera ordena daitezke (gorantz edo beherantz).

Deskribapena ▲▼	Dokumentua / URL ▲▼	Altaren data ▲▼	Ireki / Deskargatu
Methodology and steps towards the construction of EPEC, a corpus of written Basque tagged at morphological and syntactic levels for the automatic processing (bakarrik ingelesez)	CL2003 (pdf, 95274)	2006/11/02	

 Inprimatu

2.3. Agente teknologikoen kontsulta eta aurrebista

Bide hauetakoren bat erabilia kontsultatu ahal izango dituzu euskarazko IKTen inbentarioan argitaratutako agente teknologiko guztiak:

- kontsulta lan-arloka
- kontsulta aurreratua

2.3.1. Kontsulta lan-arloka

Lan-arlokako kontsultaren bidez, agente teknologikoak lan-arloen arabera kontsultatu ahal izango dituzu. Euskarazko IKTen inbentarioan, lan-arlo bakoitzean argitaratu diren agente teknologikoen kopurua izango duzu.

Arloaren izena sakatuta, lan-arlo horretako agente teknologikoen aurrebista azalduko zaizu:

AGENTE TEKNOLOGIKOAK » Lan-arlokako kontsulta

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA - TRESNAK (0) Ahots-baliabideak, lexikoak, hiztegiak, zuzentzaileak, lematizatzaileak, dok. eleanitzen edizioa, oc...	PRESTAKUNTZA/E-LEARNING (0)
SISTEMA INTERAKTIBO AURRERATUAK (1) Ahots-ezagutza automatikoa, ahotsaren sintesia, ahotsaren bidezko identifikazio biometrikoa, galdera...	ITZULPENGINTZARI LAGUNTZEKO TRESNAK (0) Itzulpen-memoriak, bestelakoak, itzulpen automatikorako produktuak
EUSKARAZKO SOFTWAREA (1) Bulegotika, enpresa-kudeaketa, erabilera orokorreko tresnak /lanabesak, irakaskuntza, bestelakoak, a...	INFORMAZIOAREN ETA JAKINTZAREN KUDEAKETA (0) Dokumentuen berreskurapena, informazio-erazketa, laburpen automatikoa, dokumentu sailkatzaileak, be...
BESTERIK (1)	E-INKLUSIOA (0)
	EDUKIEN INDUSTRIA (EUSKARAZKO EDUKI DIGITALAK SORTZEA) (0)

2.3.2. Kontsulta aurreratua

Kontsulta aurreratuaren bidez, irizpide hauen arabera bilatu ahal izango dituzu agente teknologikoak:

- Izena: irizpide honetan idatzitako testua enpresaren izenean duten agente teknologikoak bilatuko dituzu.
- Agente teknologikoarekin lotutako lan-arloak eta -azpiarloak hautatu ahal izango dituzu.
- Bilaketa testu-eremuetan; testua eremu hauetakoren batean daukaten agente teknologiko guztiak bilatuko dituzu:
 - izena
 - helbidea
 - telefonoak
 - faxa

- o helbide elektronikoa
- o web gunea
- o eskainitako zerbitzuak

Bilatu botoia sakatuta, egindako kontsultaren emaitzen aurrebista azaltzen da.

Garbitu botoia sakatuta, proposatutako bilaketa-irizpide guztiak ezabatuko dituzu.

2.3.3. Kontsulta-emaitzen aurrebista

Kontsultaren emaitzak orri-taula batean bistaratzen dira (bost agente teknologiko orri bakoitzeko). Taula horretan dago agente teknologikoaren informazioaren laburpena, eremu hauetan: izena, agente teknologikoarekin lotutako lan-arloak eta -azpiarloak, telefonoak, web gunea eta helbide elektronikoa.

Pantaila honetatik agente teknologikoaren web gunera sar zaitezke, 'web gunea' ikonoa sakatuta. Mezu elektronikoa bidaltzeko, sakatu 'bidali mezua'.

Pantaila honetatik agente teknologikoari buruzko informazioa eskuratu ahal izango duzu. Horretarako, sakatu agente teknologikoaren 'izena' eremua.

Pantaila horren goiburuan, egindako kontsulta-irizpidea azalduko zaizu.

Izena	ARLOAK: lan-azpiarloak	Telefonoak	Web gunea	Helbide elektronikoa
Estandarizazio Zerbitzua	BESTERIK EUSKARAZKO SOFTWAREA: bulegotika, erabilera orokorreko tresnak /lanabesak, enpresa-kudeaketa SISTEMA INTERAKTIBO AURRERATUAK: ahotsaren sintesia, ahots-ezagutza automatikoa	+34 945 018112		

2.4. Agente teknologikoen informazioa nola bistaratu

Agente teknologikoaren informazio-fitxan eremu hauek bistaratuko dira:

- Izena
- Helbidea
- Telefonoak
- Faxeak
- Helbide elektronikoa
- Web gunea
- Agente teknologikoarekin lotutako lan-arloak eta -azpiarloak
- Eskainitako zerbitzuak

Inprimatu

Izena: Estandarizazio Zerbitzua
 Helbidea : Donostia 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ
 Telefonoak: +34 945 018112
 Faxa: +34 945 018082
 Helbide elektronikoa: a-lezana@ej-gv.es
 Web gunea: www.euskara.euskadi.net

ARLOAK: lotutako lan-azpiarloak: SISTEMA INTERAKTIBO AURRERATUAK: ahotsaren sintesia, ahots-ezagutza automatikoa
 EUSKARAZKO SOFTWAREA: bulegotika, erabilera orokorreko tresnak /lanabesak, enpresa-kudeaketa
 BESTERIK

Eskainitako zerbitzuak: sustapena, zabalkundea...

Inprimatu

2.5. Inkesta-arloa

'Erantzun ezazu gure inkesta!' sakatuz gero, aplikazioaren atal horretara sartuko zara. Erabiltzaileen informazioa biltzeko, inkesta-inprimakia bete eta inkestaren arduradunari bidaltzeko modua izango duzu, azter dezan.

Inkesten arloa

» Zure ekarpenak hobetzen laguntzen digu. Atal honi erantsitako galdeketa bete dezakezu.
[Erantzun ezazu gure inkesta!](#)

INKESTA » Inkestaren inprimakia

Bidali Garbitu

HASIERAKO INKESTA

1.-Zein sistema eragile erabiltzen duzu?

Windows 98 (es) Windows 98 (eu) Windows 2000 Windows Me (eu)
 Windows Me (es) Windows XP (eu) Windows XP (es) Linux Mandrake
 Linux Debian

Beste batzuk:

2.-Zein bulegotika-pakete erabiltzen duzu?

Microsoft Office 97 Microsoft Office 2000 (eu) Microsoft Office 2000 (es) Microsoft Office XP
 Microsoft Office 2003 (eu) Microsoft Office 2003 (es)
 OpenOffice.org (eu)
 OpenOffice.org (es)

Beste batzuk:

3.-Zein nabigatzaile erabiltzen duzu?

Internet Explorer (eu) Internet Explorer (es) Mozilla - FireFox

Beste batzuk:

4.-XUXEN ortografia-zuzentzailea erabiltzen duzu?

Bai Ez

6.-Zein beste euskarazko errekurtsio erabiltzen duzu?

3. NOLA SARTU SISTEMARA AGENTE GISARA

Sistemara agente gisa sartzeko, erabiltzailearen identifikazioa behar duzu. Horretarako, aplikazioaren menuko aukera hau sakatu behar duzu: **Agenteentzako sarbidea**.

Euskarazko IKTen inbentarioaren sisteman izena eman ez baduzu, eskuliburu honetako 3.1 atalean azaltzen den harpidetza-prozedura egin behar duzu.

Agente gisa sartzean, alta emanda dituzun proiektuen eta agente teknologikoaren mantentze-lanak egin ahal izango dituzu. Agentearen identifikazio-barran azalduko zaizu agentearen identifikazioa.

3.1. Harpidetza/Identifikazioa

Euskarazko IKTen inbentarioaren sisteman agente gisa izena emateko, bi pauso hauek eman behar dituzu:

1. Herritar-ziurtagiri digitala eskuratzea

Prozedura honen arabera emango dira ziurtagiriak: [Ziurtagiriak eskatzeko \(pdf, 24 Kb\)](#).

Lehenik, [Eskaera-formularioa \(pdf, 26 Kb\)](#) bete, inprimatu eta sinatu egin behar duzu, edo, ahal dela, IZENPERen web zerbitzarian inprimaki elektronikoa bete, [on-line Aurrerregistratze-formularioa](#).

Ondoren, hitzordua eskatu eta hara joan behar duzu. Txartela zertarako behar duzun galdetuko dizute. Beraz, IKTen erroldaren aplikazioarekin konektatzeko dela erantzun beharko duzu (horrez gain, beste edozein herritar-txartel bezala ere erabil dezakezu).

Hitzorduaren tokiak, ordutegiak eta telefonoak zure proiektuari dagokion [Izenpeko Erregistrogunean aurkeztu](#)rik daude.

2. Sisteman agente gisa harpidetzea

Izenpen alta emandakoan, aplikazioaren menuaren aukeratik, **Agenteentzako sarbidea** aukera sakatuz gero, sisteman agente gisa harpidetu ahal izango zara, datu hauek emanda:

AGENTEENTZAKO SARBIDEA » [Identifikazioa](#) » Harpidetza

AGENTEEN HARPIDETZA

Agente teknologikoa da euskarazko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloa teknologiaz, baliabideez eta produktuez hornitzen duen erakundea. Sisteman agente gisa izena emateko, bi urrats hauek bete behar dituzu:

1.- Herritar-ziurtagiri digitala eskuratzea:

Horretarako, sakatu: [IZENPE](#).

2.- Sisteman agente gisa harpidetza egitea:

IZENPEn alta eman ondoren, bete eta bidali ezazu hurrengo inprimakia:

Izena:

NAN:

Enpresa:

Helbide elektronikoa:



Bidali



Garbitu

Sistemaren administratzaileek informazio hori baliozkotzat emandakoan, berresteko mezu elektronikoa bat bidaliko dizute. Hori jaso eta orduantxetik aurrera sartu ahal izango zara sisteman Eusko Jaurlaritzaren segurtasun-sistemaren bidez. Horretarako, sakatu: [IDENTIFIKATU](#).

Datu-babesa

Indarrean dagoen legeria betetzeko, jakinarazten dizugu jasotako datu pertsonalak "Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktuak" izeneko fitxategi automatizatuan sartuko ditugula, kontrakorik adierazten ez baduzu behintzat. Datu horiek zurekin harremanetan jartzeko eta kontsultei edo eskaerei erantzuteko erabiliko ditugu. Datuok ikusi, zuzendu edo ezabatzeko edo fitxategian jarri nahi ez dituzula adierazteko, honako helbide honetara idatzi beharko duzu: Kultura Saila, Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Sistemaren administratzaileek, informazio hori baliozkotutakoan, mezu elektronikoa bidaliko dizute, konfirmatzeko. Orduan, sistemara XLNET segurtasun-sistemaren bidez sartzeko modua izango duzu. Horretarako, [IDENTIFIKATU](#) esteka sakatu behar duzu:

AGENTEENTZAKO SARBIDEA » [Identifikazioa](#)

AGENTEEN IDENTIFIKAZIOA

Agenteentzat eskuragarri dauden kudeatzeko funtzionalitateak erabiltzeko sisteman identifikatu behar duzu hurrengo esteka sakatuz: [IDENTIFIKATU](#).

Sisteman sartzen zaren lehenengo aldia bada izena eman behar duzu hurrengo esteka sakatuz: [HARPIDETZA](#).

3.2. Proiektuen kontsulta eta aurrebista

Agente zarenean, zure proiektuen informazioaren mantentze-lanak egin ahal izango dituzu, baita euskarazko IKTen inbentarioan argitaratutako gainerako proiektu guztiak kontsultatu ere, hiru eratarata:

- Nire proiektuak
- Kontsulta lan-arloka
- Kontsulta aurreratua

3.2.1. Nire proiektuak

Nire proiektuak kontsultaren bidez, agente gisa eguneratu dituzun proiektu guztien informazioa eskuratu eta proiektu berriak eguneratzeko aukera izango duzu.

3.2.2. Kontsulta lan-arloka

Lan-arlokako kontsultaren bidez, lan-arloen arabera kontsultatu ahal izango dituzu proiektuak. Euskarazko IKTen inbentarioan, lan-arlo bakoitzean argitaratu diren proiektuen kopurua izango duzu.

Arloaren izena sakatuta, lan-arlo horretako proiektuen aurrebista azalduko zaizu.

AGENTEEN KUDEAKETA: EUSKO JAURLARITZ. INFORMATIKA ELKART. EJE (GAZ) - T06A01, T06A01

PROIEKTUAK » Lan-arlokako kontsulta

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA - TRESNAK (67) Ahots-baliabideak, lexikoak, hiztegiak, zuzentzaileak, lematizatzaileak, dok. eleanitzen edizioa, oc...	PRESTAKUNTZA/E-LEARNING (5)
SISTEMA INTERAKTIBO AURRERATUAK (18) Ahots-ezagutza automatikoa, ahotsaren sintesia, ahotsaren bidezko identifikazio biometrikoa, galdera...	ITZULPENGINTZARI LAGUNTZEKO TRESNAK (15) Itzulpen-memoriak, bestelakoak, itzulpen automatikorako produktuak
EUSKARAZKO SOFTWAREA (190) Bulegotika, enpresa-kudeaketa, erabilera orokorreko tresnak /lanabesak, irakaskuntza, bestelakoak, a...	INFORMAZIAREN ETA JAKINTZAREN KUDEAKETA (21) Dokumentuen berreskurapena, informazio-erazketa, laburpen automatikoa, dokumentu sailkatzaileak, be...
BESTERIK (4)	E-INKLUSIOA (5)
	EDUKIEN INDUSTRIA (EUSKARAZKO EDUKI DIGITALAK SORTZEA) (8)

3.2.3. Kontsulta aurreratua

Kontsulta aurreratuaren bidez, irizpide hauen arabera bilatu ahal izango dituzu proiektuak:

- Nire erakundeak eguneratutako proiektuak: kontrol-lauki bat da. Hori txekiatuz, agenteak alta emandako proiektuak bakarrik bilatuko dituzu.
- Izena/Deskribapena: irizpide honetan idatzitako testua izenean edo deskribapenean duten proiektuak bilatuko dituzu.
- Proiektu-mota: proiektu-mota bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- Lehenetsua: lehenetsu bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- Baliozkotzea: baliozkotze-egoera bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- ARLOAK; lotutako lan-azpiarloak: azpiarlo bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- Egoera: egoera bat edo gehiago hautatu ahal izango dituzu.
- Bilaketa testu-eremuetan; testua eremu hauetakoren batean duten proiektu guztiak bilatuko dituzu:
 - izena
 - izen laburra
 - helburuak/azalpena
 - sustatzaileak
 - proiektuaren arduradunak
 - beste agente kolaboratzaileak
 - jardueraren eremua
 - hartzaileak/erabiltzaileak
 - betekizun adierazgarriak
 - jarduera nagusiak
 - erabilitako baliabideak
 - teknologiaren deskribapena
 - proiektuaren epemuga
 - benetako epemuga
 - zailtasunak
 - emaitzak/balorazioa
 - lortutako aterakinak
 - jarraipena – geroko jarduerak - lotutako proiektuak
 - merkaturatzeko eta banatzeko burututako ekintzak
 - jabetza
 - Eusko Jaurlaritzaren erabilera-eskubideak
 - erabiltzaile baliozkotzailea
 - erabiltzaile baliozkotzailearen oharrak
 - erabiltzaile eguneratzailea
 - erabiltzaile eguneratzailearen oharrak

Bilatu botoia sakatuta, egindako kontsultaren emaitzen aurrebista azalduko zaizu.

Garbitu botoia sakatuta, proposatutako bilaketa-irizpide guztiak ezabatuko dituzu.

Berria botoia sakatuta, proiektu berri bati alta emateko atalera sartuko zara.

AGENTEEN KUDEAKETA: EUSKO JAURLARITZ. INFORMATIKA ELKART. EJE (GAZ) - T06A01, T06A01

PROIEKTUAK » Kontsulta aurreratua

Bilatu Garbitu Berria

Nire erakundeak eguneratutako proiektuak

Izena / Deskribapena:

Proiektu-mota:

Lehentasuna: Handia Ertaina Txikia

Baliozkotzea: Baliozkoa Ez baliozkoa Baliozkotzeke

ARLOAK: lotutako lan-azpiarloak:

Egoera: Amaitua Aurreikusia Egiteko bidean Etengabe eguneratzen

Bilaketa testu-eremuetan:

Bilatu Garbitu Berria

3.2.4. Kontsulta-emaitzen aurrebista

Kontsultaren emaitzak orri-taula batean bistaratzen dira (bost proiektu orri bakoitzeke). Taula horretan dago proiektuaren informazioaren laburpena, eremu hauetan: izena, proiektu-mota, proiektuarekin lotutako lan-arloak eta -azpiarloak, egoera, lehentasuna, proiektuarekin lotutako dokumentazioa eta baliozkotze-egoera.

Eremu horien arabera ordena daiteke taula (gorantz edo beherantz).

AGEITHEEN KUDEAKETA: EUSKO JAURLARITZ. INFORMATIKA ELKART. EJE (GAZ) - T06A01, T06A01							
PROIEKTUAK » Kontsulta aurreratua » Kontsultaren emaitzak							
Kontsultarako irizpideak: Izena / Deskribapena: xuxen ; Nire erakundeak eguneratutako proiektuak							
Lehena Aurrekoa Orria 1/1 (2 aurkituak) Hurrengoa Azkena							
Berria	Aldatu	Ezabatu	Bistaratu	Inprimatu			
	Izena	Mota	ARLOAK: lan-azpiarloak	Egoera	Lehentasuna	Dok.	Oniritzia
	XUXEN zuzentzaile ortografikoaren I eta II bertsioak (MS Office 97 eta Mac Word 2001, Mac Word 98,	Aplikazioen / Produktuen garapena	HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak	Amaitua	Handia		✓
	Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 Windows/Linux, MAC Word X)	Aplikazioen / Produktuen garapena	HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak	Amaitua	Handia		✓
Berria	Aldatu	Ezabatu	Bistaratu	Inprimatu			
Lehena Aurrekoa Orria 1/1 (2 aurkituak) Hurrengoa Azkena							

Txantilo horretatik sistemaren funtzio hauetara sar zaitezke:

- Proiektu bat hautatu eta **Bistaratu** botoia sakatuta, proiektuaren informazio-fitxako deskribapen-atalera sartuko zara.
- **Dokumentazioa** ikonoa sakatuta, proiektuko fitxaren dokumentazio-atalera sartuko zara (ikonoa bistaratzen da, proiektuarekin lotutako dokumentazioa badago).
- Proiektu bat hautatu eta **Inprimatu** botoia sakatuta, inprimaki-formatuan dagoen proiektuaren fitxa eskuratuko duzu.
- **Berria** botoia sakatuta, proiektu berri bati alta emateko atalera sartuko zara.
- Proiektu bat hautatu eta **Aldatu** botoia sakatuta, hautatutako proiektuaren informazioaren mantentze-lanak egiteko aukera izango duzu.
- Proiektu bat hautatu eta **Ezabatu** botoia sakatuta, proiektua eta horrekin lotutako informazio guztia ezabatuko duzu.

Pantaila horren goiburuan, egindako kontsulta-irizpidea azalduko zaizu.

3.3. Proiektuen mantentze-lanak

Eguneratu behar den proiektuari buruzko informazioa ataletan dago sailkatuta. Edukiak bi hizkuntzatan eguneratu behar dituzu: euskaraz eta gaztelaniaz. Atal bakoitzean datu hauek alda ditzakezu:

- **Deskribapena**
 - Izena
 - Izen laburra
 - Proiektu-mota
 - ARLOAK; lotutako lan-azpiarloak
 - Helburuak/Azalpena
 - Sustatzaileak
 - Proiektuaren arduradunak
 - Beste agente kolaboratzaileak

AGENTEEN KUDEAKETA: EUSKO JAURLARITZ. INFORMATIKA ELKART.EJIE (GAZ) - T06A01, T06A01

PROIEKTUAK » [Kontsulta aurreratua](#) » [Kontsultaren emaitzak](#) » Mantentze-fitxa

Proiektuaren izena: **Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 Windows/Linux, MAC Word X)**

Deskribapena | Jardueraren eremua | Jardu. / Bal. / Tekn. | Kontr. eta Jar. | Jabetza | Dokumentazioa

Onartu | Utzi

Proiektu-mota: Aplikazioen / Produktuen garapena

Kodea: Eleka19

Izena (eu): Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 Windows/Linux, MAC Word X)

Izena (es): Xuxen III corrector ortográfico (MS office2000/XP, Mac word X, Open office.org 1.1 Windows/Linux)

Izen laburra (eu): Xuxen III, zuzentzaile ortografikoa (Office 2000/XP, Open Office.org 1.1 W

Izen laburra (es): Xuxen III corrector ortográfico (MS office2000/XP, Mac word X, Open off

LAN-ARLOAK: lotutako azpiarloak:

HIZKUNTZA-BALIABIDEAK ETA -TRESNAK: zuzentzaileak

Helburuak / Azalpena (eu): Euskarazko testuetako errore ortografikoak markatzea eta zuzentzea. Testu-editore gehienetan erabili ahal izatea.

